



LAGUNTZA DEIALDIA, UNIBERTSITATE MASTERRAK EGITEKO UPV/EHU_n 2021/2022 IKASTURTEAN.

OINARRIAK

1.- LEGE BABESA

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak dio, 38.3 artikuluan, unibertsitateek beka, kreditu eta ikasketetarako laguntzak emateko beren sistema garatu ahal izango dutela.

Bestalde, UPV/EHUko Estatuetako 16. artikulua araberak, UPV/EHUk irakats baldintza egokiak eta eskaintza osagarriak jarriko ditu honako hauek sustatzeko: ikasleen garapen pertsonala, prestakuntza osoa, ikerketa eta garapen zereginetan aritzeko aukera UPV/EHU_n bertan zein unibertsitateak sortutako erakundeetan edo parte hartzen duenetan, heziketa praktikoa osatzeko bidea eta gizartera eta lan mundura sartzeko era. Horretarako, UPV/EHUk laguntza sistema zabala bultzatuko du.

2.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da unibertsitate masterrak 2021/2022 ikasturtean egiteko laguntzak ematea.

Ikasleak master bakarrerako eskatu ahal izango du laguntza hau.

3.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Ikasleei urteko 3.000 € emango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan bizi badira, eta urteko 4.500 € beste autonomia erkidego edo herrialde batean bizi badira.

Ikasle onuradunek, 90 edo 120 ECTS kredituko masterretan matrikulatuta egonez gero, dirulaguntza handiagoa jaso ahal izango dute, masterra egiteko ikasturte bat baino gehiago behar dutelako, laguntza ikasturtearen iraupenaren arabera izango delarik. Baina diru kopuru hori jaso ahal izateko, eskaera aurkeztuta, aurreko

CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE MÁSTERES UNIVERSITARIOS EN LA UPV/EHU EN EL CURSO ACADÉMICO 2021/2022.

BASES

1.- AMPARO LEGAL

El artículo 38.3 de la ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco señala que las universidades podrán desarrollar su propio sistema de becas, créditos y ayudas al estudio.

Por su parte, según el artículo 16 de los Estatutos de la UPV/EHU, la UPV/EHU promoverá las condiciones docentes y las ofertas complementarias dirigidas a favorecer el desarrollo personal del alumnado, su formación integral, la colaboración en actividades de investigación y desarrollo en la propia UPV/EHU o en entidades creadas o participadas por ella, el complemento de su formación práctica y su inserción social y laboral, para lo cual, la UPV/EHU promoverá un sistema amplio de ayudas.

2.- OBJETIVO DE LA CONVOCATORIA

El objetivo de esta convocatoria es facilitar la realización de másteres universitarios en la UPV/EHU en el curso académico 2021/2022.

Cada alumno o alumna podrá solicitar esta ayuda para un único Master.

3.- DOTACIÓN

Las ayudas consistirán en una dotación de 3.000 €/año al alumnado con domicilio en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de 4.500 €/año al alumnado con domicilio en otras comunidades autónomas u otros países.

El alumnado beneficiario y matriculado en Másteres de 90 o 120 créditos ECTS, cuya finalización implica un periodo superior a un curso académico, podrá optar a una dotación adicional para este periodo, que será proporcional a la duración del curso. En todos los casos, la concesión de esta ayuda estará condicionada a la presentación de la solicitud, al aprovechamiento y



ikasturteko kreditu guztiak gaindituta eta berriro aukeratua izatea beharrezkoa izango da.

Bekak esleitutako aurrekontua (300.000 €) agortu arte emango dira. Aurrekontua banatuko da eskaerak aurkezteko azken egunean jakintza-arlo bakoitzean matrikulatutako ikasle-kopuruaren arabera, modu proportzionalan.

4.- LEHIATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Laguntza hauek lortu nahi duten hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte, eskaerak aurkezteko xedatutako epearen barruan:

a) UPV/EHUK 2021/2022 ikasturtean eskainitako unibertsitate master batean izena emanda izatea edo bestela, 90 edo 120 ECTS kredituko master baten matrikula egiten duten ikasleen kasuan, matrikula egiterakoan aurreko ikasturteko 60 kredituak gaindituta izatea.

b) Unibertsitate masterretako ikasketak egiteko beharrezkoa den titulazioaren jabe izatea.

Hala ere, graduako azken mailako ikasleek laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte; baina laguntza jaso ahal izateko, deialdian xedatutako baldintzak bete beharko dituzte matrikula egitean.

c) Ezin izango dira laguntza honen onuradun izan unibertsitateko beste master bat egina daukaten ikasleak.

d) Laguntza eskatu duen ikasleak subentzio edo laguntza publikoak lortzeari dagozkion zigor penal zein administratiborik ez izatea, ez eta honetarako ezgaituko lukeen ezelako debeku legaletan sartuta egon ere.

5.- ESKAERAK AURKEZTEA

5.1. Eskaerak **aurkezteko epea**. Deialdi hau 6. atalean aipatzen den web orrian argitaratzen den egunetik aurrera aurkez daitezke eskaerak, **2021eko urriaren 11era arte**.

superación íntegra de los créditos del curso anterior, así como ser de nuevo seleccionado.

Las becas se concederán hasta agotar el presupuesto asignado (300.000 €), que se repartirá de forma proporcional al número de estudiantes matriculados/as en cada campo científico a fecha de cierre de solicitudes.

4.-REQUISITOS DE LOS Y LAS ASPIRANTES

El alumnado interesado en solicitar esta ayuda deberá reunir, dentro del plazo establecido para presentar las solicitudes, los siguientes requisitos:

a) Estar preinscrito o preinscrita en un Máster Universitario ofertado por la UPV/EHU en el curso académico 2021/2022, o bien haber superado los 60 créditos del curso anterior para el alumnado matriculado en un Máster de 90 o 120 créditos ECTS en el momento de formalizar la matrícula.

b) Tener superada la titulación por la que se accede a los estudios de Máster Universitario.

No obstante, el alumnado de último curso de Grado podrá solicitar estas ayudas, si bien su concesión estará condicionada a cumplir en el momento de la matrícula los requisitos que se establecen en la convocatoria.

c) No podrá ser beneficiario de esta ayuda el alumnado que haya cursado otro Máster Universitario.

d) El alumnado solicitante no podrá hallarse sancionado penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello.

5.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

5.1. **Plazo de presentación**. Las solicitudes podrán presentarse desde la fecha de publicación de la presente convocatoria en la web indicada en el apartado 6, **hasta el 11 de octubre de 2021**.

5.2. Aurkezteko modua: digitala

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/master-bekak-eta-laguntzak>

5.3. Dokumentuak:

- Online eskaera orria
- NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- Ikasketen ziurtagiri pertsonala, masterrera sartu ahal izateko eskubidea ematen duen karrerako batuz bezteko notarekin, UPV/EHU egin badu 1988. urtetik aurrera aurkeztu beharrik egongo ez delarik.

Ikasketak atzerriko unibertsitate batean egin dituen ikasleak unibertsitate ikasketen batez besteko noten baliozkotze ziurtagiria, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak emana. Eskaria Internet bidez egin daiteke helbide honetan:

<https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/gestion-titulos/estudios-universitarios/titulos-extranjeros/equivalencia-notas-medias.html>

- Merezimendu guztiak (webgunean agertzen diren Curriculum Vitaeri buruzko 1, 2 eta 3 dokumentuak).

Agiri bidez behar bezala egiaztatutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko.

- Bestelako unibertsitate masterren jabe ez dela adierazten duen zinpeko deklarazioa (webguneko 4. dokumentua).

- Eskatzailearen erroldatze ziurtagiria edo, honen ezean, egiaztigiri baliokidea, atzerrian kokatutako helbidea duen ikasleari dagokionean.

5.2. Forma de presentación: digital

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/master-bekak-eta-laguntzak>

5.3. Documentos:

- Solicitud online
- Fotocopia del DNI o pasaporte.
- Certificación Académica Personal con indicación de la nota media obtenida en la titulación que da acceso al Máster, no siendo necesaria su presentación si la ha cursado en la UPV/EHU con posterioridad al año 1988.

El alumnado que haya realizado sus estudios en una Universidad extranjera, deberá aportar el Certificado de equivalencia de sus notas medias de los estudios universitarios expedido por el Ministerio de Educación, y Formación Profesional, que puede solicitarse de forma telemática en la dirección:

<https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/gestion-titulos/estudios-universitarios/titulos-extranjeros/equivalencia-notas-medias.html>

- Méritos que posea (documentos 1, 2 y 3 del Curriculum Vitae (ver página web)).

Únicamente se valorarán los méritos que sean debidamente acreditados documentalmente.

- Declaración Jurada de no estar en posesión de otro Máster Universitario (documento 4 de la página web).

- Certificado de empadronamiento del o de la solicitante, o en su caso, documento acreditativo equivalente, para el alumnado con domicilio en un país extranjero.



6.- JAKINARAZPENETARAKO ARGITARATZEKO BIDEAK

Deialdiari buruzko agiriak eta informazio guztia, bai eta interesatuei egin beharreko jakinarazpenak, honako webgunean argitaratuko dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/master-bekak-eta-laguntzak>

Halaber, eskatzaileek helbide elektroniko bat zehaztu beharko dute laguntza eskatzeko inprimakian, banakako jakinarazpenak bertara igortzeko.

7.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango dira masterretarako laguntzak emateko irizpideak:

a) Espediente akademikoa (90 puntu gehienez). Masterrera bidea eman dion unibertsitate titulazioko ikasketen batez besteko kalifikazioa kontutan hartuko da. Ondorio horietarako, ingeniaritza eta arkitekturako ikasketetatik etorritako batez besteko notak 1,17 koefizientearengatik biderkatuko dira.

a) Ikasleak agertutako merezimenduak: bestelako ikasketak, atzerriko hizkuntzak, lanak eta abar (10 puntura arte).

1.- Atzerriko hizkuntzak jakitea (gehien dela, 3 puntu):

- C2 mailako titulua: 3 puntu.
- C1 mailako titulua: 2 puntu.
- B2 mailako titulua: puntu 1.

Halaber, ziurtagiriek europar sistemaren baliokidetzaz ezarri beharko dute.

2.- Nazio eta nazioarte mailako programa eta jarduera akademikoetan parte hartzea (gehien dela, 5 puntu):

- Mugikortasun programak: 2 puntu.
- Curriculumetik kanpoko praktikak enpresetan, ikerguneetan edo unibertsitateetako ikastegietan: 0,25 puntu hilabeteko edo egindako 80 ordu bakoitzeko.

6.- MEDIOS DE NOTIFICACIÓN Y PUBLICACIÓN

Toda la documentación e información relativa a esta Convocatoria, así como las notificaciones a los interesados y las interesadas, se publicarán en la siguiente página web:

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/master-bekak-eta-laguntzak>

Asimismo, el alumnado solicitante deberá indicar en el impreso de solicitud de la ayuda, una dirección de correo electrónico en la que le serán efectuadas las comunicaciones individuales.

7.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

Se otorgarán las ayudas para los Másteres Universitarios en base a los siguientes criterios:

a) El expediente académico (hasta 90 puntos). Se tendrá en cuenta la nota media de los estudios que le dan acceso al Máster. A estos efectos, las notas medias procedentes de estudios de enseñanzas de Ingeniería y Arquitectura se multiplicarán por el coeficiente 1,17.

b) Méritos alegados por el alumnado: Otros estudios, idiomas extranjeros, trabajos realizados, etc. (hasta 10 puntos).

1.- Conocimiento de idiomas extranjeros (Máximo 3 puntos):

- Título Nivel C2: 3 puntos.
- Título Nivel C1: 2 puntos.
- Título Nivel B2: 1 punto.

Asimismo, las certificaciones deben establecer la equivalencia con el sistema europeo.

2.- Participación en programas y actividades académicas nacionales e internacionales (Máximo 5 puntos):

- Programas de Movilidad: 2 puntos.
- Prácticas extracurriculares en Empresas, Centros de Investigación o Centros Universitarios: 0,25 puntos por mes o por cada 80 horas.

– Eusko Jaurlaritzaren Ikasiker lankidetzeta beka edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren lankidetzeta beka: 2 puntu.

3.- Bestelako merezimenduak (gehienez, 2 puntu):

– Masterrerako sarbidea ematen duen tituluz gain, beste titulu bat izatea: puntu 1, gehienera.
– Ikasleen ordezkarietarako organoetan parte hartzea: puntu 1, gehienera.

8.- ESKAEREN BALIOESPENA ETA LAGUNTZAK EMATEKO PROPOSAMENA

Hautaketa bi fasetan egingo da

Lehenengo fasean, kontuan hartu beharreko merezimendua espedientearen batez besteko nota da; eskabideak masterraren ezagutza-adarraren arabera ordenatuko dira, eta adar bakoitzaren barruan, eskatzailearen batez besteko notaren arabera.

Bigarren fasera pasatuko dira adar bakoitzeko emango diren beken bikoitza.

Adar bakoitzaren puntuazioen zerrenda ordenatua **azaroaren 5an** argitaratuko da.

Interesdunek erreklamazioa aukez ditzakete 10 eguneko epean zerrenda web orrian argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Bigarren fasean, hautatutako pertsonak ordenatzeko, ebazpen honen zazpigarren atalean jasotako merezimendu guztien balorazioa hartuko da kontuan.

Bigarren fasearen argitalpena abenduan egingo da.

9.- ERABAKIA

Laguntzak Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearen erabakiaren bitartez esleituko dira, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an emandako Erabakian errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta

– Beca Ikasiker de Colaboración del Gobierno Vasco o beca Colaboración del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte: 2 puntos.

3.- Otros méritos (Máximo 2 puntos):

– Otras Titulaciones distintas de la que da acceso al Máster: 1 punto máximo.
– Participación en órganos de representación estudiantil: 1 punto máximo.

8.- VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES Y PROPUESTA DE CONCESIÓN DE LAS AYUDAS

El proceso de selección se realizará en dos fases.

En la primera fase el mérito a tener en cuenta es la nota media del expediente, ordenándose las solicitudes por rama de conocimiento del máster y dentro de cada rama por la nota media de la persona solicitante.

Pasarán a la segunda fase el doble de personas que becas se vayan a conceder por cada una de las ramas.

El listado ordenado de las puntuaciones de cada una de las ramas se publicará **el 5 de noviembre**.

Las personas interesadas podrán presentar reclamación en el plazo de 10 días desde la publicación del listado en la página web.

En la segunda fase, las personas seleccionadas se ordenarán teniendo en cuenta la valoración de todos los méritos que se recogen en el apartado séptimo de la presente Resolución.

La publicación de esta segunda fase se realizará en diciembre.

9.- RESOLUCIÓN

De conformidad con lo previsto en la Resolución de 28 de enero de 2021, de la Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre delegación de competencias de la Rectora y estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno, las ayudas serán adjudicadas mediante Resolución por la Vicerrectora de Posgrado y Formación Continua.



funtzionamendu arloak zehazteko ezarritakoari jarraiki.

Erabaki horren bidez onartuko dira onuradunen eta baztertuen zerrenda; ordezkoen zerrenda ere onartuko da, eta inork laguntzari uko eginez gero, zerrenda hori erabiliko da eman gabe geratutako laguntza emateko. Pertsona bakoitzaren balorazioa argitaratuko da.

Erabakia deialdi honetako 6. atalean adierazitako webgunean argitaratuko dira.

Errekurtso hauek jar daitezke errektoreordearen erabakiaren kontra:

a) Nahi izanez gero, **berraztertze errekurtsoa** aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, erabakiaren berri eman eta biharamunetik aurrera hasita (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua); errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, administrazio isiltasunez errekurtsoa ezetsizat jo dela ulertu beharko da.

b) Bestela, **administrazioarekiko auzi errekurtsoa** Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hori guztia abenduaren 21eko Lege Organikoaren 6.4 artikuluan eta Administrazio Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legearen 8.3 eta 14.1 artikuluetan (lehenengo irizpidean) adierazitakoarekin bat etorrita.

10.- LAGUNTZAREN EZAUGARRIAK ETA ONURADUNEN ERREGIMENA

10.1. Laguntzaren onuradun izateak ez dakar kontratu bidezko ezelako harremanik UPV/EHUren eta ikaslearen artean.

10.2. Laguntza hau ez da bateragarri honakoekin:

a) Beste erakunde edo organismo pribatu edo publikoek unibertsitate masterrak egin edo beroni loturiko kostuei (matrikula, joan-etorriak edo egoitza) aurre egiteko emandako beste beka edo laguntzarekin.

Dicha Resolución aprobará el listado de las personas beneficiarias y las denegaciones de las ayudas y, junto con ello, el listado de suplentes que sucederán a los/as beneficiarios/as en caso de producirse renunciaciones a las ayudas. Se indicará la puntuación obtenida por cada persona.

La Resolución se publicará en la página Web indicada en el apartado 6 de esta Convocatoria.

Contra la Resolución de la Vicerrectora, cabe interponer los siguientes recursos:

a) Potestativamente, el **recurso de reposición** que autoriza el artículo 123 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, en el plazo de 1 mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación ante la Rectora de la UPV/EHU, el cual se entenderá desestimado por silencio negativo, una vez transcurrido 1 mes desde su interposición sin notificarse la resolución expresa del mismo.

b) Directamente, **recurso contencioso administrativo** ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Bilbao en el plazo de 2 meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación de la resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades y en los artículos 8.3 y 14.1, regla primera, de la vigente Ley 29/1998, de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

10.-CARACTERÍSTICAS DE LA AYUDA Y RÉGIMEN DE LOS BENEFICIARIOS Y LAS BENEFICIARIAS

10.1. La adjudicación de la ayuda no supone relación contractual alguna entre el alumnado beneficiario y la UPV/EHU.

10.2. Estas ayudas no son compatibles con:

a) La percepción de otras becas o ayudas convocadas por entidades u organismos públicos o privados cuya finalidad sea la realización de un Máster Universitario o para sufragar los costes inherentes al mismo (matrícula, desplazamiento o residencia).

b) Ordu arduraldirik dakarren beste edozein laguntza edo bekarekin.

c) Soldata-ordainsari izaera daukan edozein diru kopururekin, betiere, kopuru hori lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiago bada.

10.3. Laguntza esleitzen zaionean, ikasle onuradunak ikastaro osoan matrikulaturik egon beharko du eta honako dokumentu hauek aurkeztu:

a) Interesdunaren aitortpena, laguntza eta deialdian xedatutako baldintzak eta betebeharrak onartzen direla ziurtatzen duena (A dokumentua).

b) Zinpeko aitortpena, beka jasotzeko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena (B dokumentua).

c) Ikasle onuradunaren banku datuak: erakundea, sukurtsala eta kontu zenbakia, dirulaguntza sartu ahal izateko (C-1 eta C-2 agiriak).

10.4. Dirulaguntza jaso gero onuradunak konpromisoa dauka unibertsitate masterrari dagokion ikasturte osoa egiteko, eta gutxienez eskola zamaren %70 gainditzeko. Hala egingo ez balu, onuradunaren izaera galduko du eta dirulaguntza baliogabetu egingo da, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituelarik.

Ikasleak ECTS kredituak baliozkotzeko eta/edo aitortzeko eska dezake, masterra gainditzeko behar diren kredituen %15a, gehienez ere.

10.5. Dirulaguntzaren % 65a abenduan ordainduko da, onuradunak A, B, C1 eta C2 dokumentuak sinatuta aurkeztu ondoren, bai eta matrikula agiriaren fotokopia ere, eta 6. atalean adierazitako web gunean argitaratutako laguntza gauzatzeko prozeduran ezarritakoarekin bat etorrita. Prozedura horretan ezarritako betebeharrak haustea onuradun izaera galtzeko arrazoi izango da.

%35a ordaindu egingo da 2022ko martxoan.

b) El disfrute de cualquier otra ayuda o beca que suponga dedicación horaria.

c) La percepción de cualquier cuantía que tenga naturaleza salarial que sea superior al salario mínimo interprofesional.

10.3. En el momento de la adjudicación de la ayuda, el alumnado beneficiario deberá estar matriculado del curso completo, y presentar los siguientes documentos:

a) Declaración individualizada de aceptación de la ayuda y de las condiciones de disfrute y obligaciones previstas en la convocatoria (Documento A).

b) Declaración jurada de no estar sujeto o sujeta a incompatibilidad en la percepción de la ayuda (Documento B).

c) Datos bancarios del alumnado beneficiario, entidad, sucursal y nº de cuenta en la que debe realizarse el ingreso (Documentos C-1 y C-2).

10.4. La concesión de esta ayuda supone para el alumnado beneficiario el compromiso de realizar el curso académico completo del Máster Universitario y superar al menos, el 70% de la carga lectiva del mismo. El incumplimiento de este deber será causa de pérdida de la condición de beneficiario/a y revocación de la ayuda con la consiguiente obligación de devolución de las cantidades percibidas.

El alumnado podrá solicitar la convalidación y/o reconocimiento de créditos ECTS, hasta un máximo de un 15% de los créditos necesarios para superar el Máster.

10.5. El 65% del importe de la ayuda se abonará en diciembre, una vez que el alumnado beneficiario haya presentado los documentos A, B, C 1 y C 2 firmados, así como copia de la matrícula, y de acuerdo con lo establecido en el Procedimiento para hacer efectiva la ayuda, que se publicará en la Web indicada en el apartado 6. El incumplimiento de los requisitos establecidos en dicho procedimiento será motivo de pérdida de la condición de beneficiario/a.

El 35% se abonará en marzo de 2022.

10.6. Laguntza izateak ez du eskubiderik ematen laguntza eskatutako masterraren prezio publikoak ez ordaintzeko.

10.7. Dirulaguntzen onuradunek honako arrazoi hauengatik utziko diote onuradun izateari:

a) Uko egitea (D dokumentua).

b) Unibertsitateak laguntza kentzea interesatuak eginbeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza emateko aintzat hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.

c) Sortutako bateraezintasuna.

Onuraduna b) edo c) egoeran izanez gero, espedientea izapidetuko da, eta entzunaldia emango zaio urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoarekin bat.

10.6. El disfrute de la ayuda no dará derecho a la exención de precios públicos del Master para el que ha solicitado la ayuda.

10.7. La condición de beneficiario o beneficiaria se perderá por alguna de las siguientes causas:

a) Renuncia (Documento D).

b) Revocación por incumplimiento de obligaciones o por variación de las condiciones que se tomaron en cuenta para su concesión.

c) Incompatibilidad sobrevenida.

La concurrencia de las circunstancias b) o c) dará lugar a la tramitación de expediente en el que se dará audiencia al interesado o a la interesada conforme prevé la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

11.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako oinarrietan zehaztuta ez dagoen guztirako, hauek aplikatuko dira: Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/03 Lege Orokorra eta horren araudia onartzen duen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko VI. atala eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua; UPV/EHUko Unibertsitate Masterren Gestioari buruzko Arautegia; eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.

12.- DEIALDI HONEN AURKAKO ERREKURTSOA

Deialdi honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreari, hilabeteko epean, deialdia 6. atalean aipatutako web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontaktzen hasita; bestela, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, esandako egun beretik kontaktzen hasita.

11.- RÉGIMEN JURÍDICO

En lo no previsto en las bases de esta convocatoria se aplicarán las previsiones de la Ley 38/2013, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba su reglamento; el título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, sobre subvenciones, y el Decreto 698/1991, de 17 de la vigente Normativa de Gestión de Másteres Universitarios de la UPV/EHU, y la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

12.- RECURSO CONTRA LA PRESENTE CONVOCATORIA

Contra la presente Convocatoria cabe interponer recurso potestativo de reposición ante la Vicerrectora de Posgrado y Formación Continua en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en la Web indicada en el apartado 6, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados de igual forma.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE POSGRADO Y FORMACIÓN
CONTINUA

Leioa, 2021eko irailaren 10a

Leioa, 10 de septiembre de 2021